

18. unitatea: Eta zure herrian?

Helburua: Lagunari herritar ezagun baten biografiaz idaztea. Lehenaldia.

Nor da?

Pertsonaiak	Lanbideak	Zenb.
Fausto Elhuyar	Zientzialaria	1
Izaro Andres	Abeslaria	2
Joxe Antonio Agirre	Lehendakaria	6
Uxue Barkos	Nafarroako presidentea	8
Erausoko Katalina	Alfereza	7
Maurice Ravel	Musikaria	4
Garbiñe Muguruza	Tenis-jokalaria	5
Elbira Zipitria	Lehenengo andereñoa	10
Migel Servet	Mediku, teologo eta filosofoa	9
Eduardo Chillida	Eskultorea	3

1. PERTSONAIA	Fausto Elhuyar
2. PERTSONAIA	Moja Alfereza, Erausoko Katalina
3. PERTSONAIA	Migel Servet
4. PERTSONAIA	Maurice Ravel

Transkripzioa

Gaur ere, egunero bezala, NOR DA saioa egingo dugu, Euskadi Irratian. Atzo ez zuen inork asmatu nortzuk ziren gure pertsonaia ezkutua, ea gaur zorterik duzuen. Asmatzen baduzue, liburuak eta diskoak izango dituzue opari. Gogoratu atzotik Euskal Herrian gaudela, pertsonaia guztiak Euskal Herriakoak dira. Entzun ondo, eta asmatu. Gure telefonoa: 943 081234.

Lehenengo pertsonaia ezkutua

1755ean Euskal Herritik kanpo jaio zen, baina berehala etorri zen Euskal Herrira. Gaztetan Bergarako Errege Mintegian eta Saxonian egin zituen ikasketak. Gero, berriro itzuli zen Euskal Herrira eta Bergaran, mineorologia irakatsi zuen. XVIII. Mendean Europako lagorategi kimikorik onena Bergaran zegoen eta hona etorri ziren Europako kimikorik ospetsuenak.

Gure pertsonaiak bere anaiarekin batera Wolframioa aurkitu zuen 1783an. Orain hiztegi batek bere izena du.

Argi entzule, bigarren pertsonaia orain.

Emakume hau Donostian jaio zen 1592an. Antiguoko komentuan moja egin zen, baina berehala ihes egin zuen eta Ameriketara joan zen.

Han armadan sartu zen, eta, ekintza heroikoak egin zituelako, alferez gradua lortu zuen. Espainiako Erregearekin eta Aita Sanduarekin ere hitz egin zuen. Mexikon hil zen, 1650 urtean.

18. unitatea: Eta zure herrian?

Helburua: Lagunari herritar ezagun baten biografiaz idaztea. Lehenaldia.

3. pertsonaia ere oso ezaguna izan zen.

Gizon hau Tuteran jaio zen 1511n. Geografian eta etnografian oso jakintsua izan zen eta, gainera, odolaren zirkulazioa aurkitu zuen.

Baina, orduan European erlijio-gerrak pil-pilean zeuden eta Eliza Katolikoak eta Calvinok jazarri egin zuten.

Kalvinok Genevan bizirik erre zuen, baina Migelek bere ideiekin jarraitu zuen.

Bueno, eta orain azken pertsonaia. Entzun erne, oso famatua da eta!

Musikagile ospetsu hau Ziburun jaio zen. Mundu osoan ibili zen, baina Euskal Herria asko maite zuelako, askotan etorzen zen Donibane Lohitzunera. Obra asko idatzi zituen eta zortziko erritmoa ere erabili zuen. Bere pieza batek "zazpirak bat" zuen izena, baina ez da famatuena. Bere obra famatuena bolero bat da. 1937an hil zen.

Egia ala gezurra

- Fausto Elhuyar Euskal Herrian jaio zen. **GEZURRA**
- Lantegi kimikorik onena Bergaran zegoelako, kimiko asko etorri zen Euskal Herrira. **EGIA**
- Faustok eta bere anaiak Wolframioa aurkitu zuten. **EGIA**
- Ameriketara jaio zen Katalina. **GEZURRA**
- Alferez gradua lortu zuen, ekintza heroikoak egin zituelako. **EGIA**
- Migel Servetek aurkitu zuen odolaren zirkulazioa. **EGIA**
- Bere ideiak aldatu ez zituelako, Calvinok erre egin zuen. **EGIA**
- Ravel ez zen Euskal Herrira etortzen, maite ez zuelako. **GEZURRA**
- Ravelen *Zazpirak bat* famatuena da. **GEZURRA**
- Ravelek ez zuen bolerorik idatzi. **GEZURRA**

Testua osatu: Kalkutako Ama Teresa

Agnes Gonxha Najaxhiu (Kalkutako Ama Teresa) 1910eko abuztuaren 26an jaio ZEN Macedoniako Skopje herrian. Hemeretzi urte ZITUENEAN, 1929ko maiatzaren 23an, Loretoko nobiziotegian sartu ZEN. Zortzi urte geroago, botoak egin ZITUEN, eta "Ama Teresa" izena hartu ZUEN Loretoko ohiturekin jarraitzeko.

1946ko irailean, ideia bat izan ZUEN: "Karitateko Misiolariak" ordena sortzea. Ordena horren barruan lau adar gehiago ere sortu ZITUEN Ama Teresak. Baina erlijiosoak bakarrik ez, laikoak ere animatu ZIREN pobreei laguntzera.

Bere bizitza osoan sari asko eta asko jaso ZITUEN mundu osoan zehar: ehun eta hogeita lau. Saririk garrantzitsuenak 1979. urtean jaso ZUEN: Bakearen Nobel Saria.

1997ko irailaren 5ean hil ZEN Kalkutan, eta handik denbora gutxira hasi ZUTEN emakume hau santa egiteko prozesua.

1.-

- a) zen
- b) zuen

2.-

- a) zenean
- b) zituenean

3.-

- a) zen
- b) ziren

4.-

- a) zituen
- b) zuen

5.-

- a) zen
- b) zuen

6.-

- a) zen
- b) zuen

7.-

- a) ziren
- b) zituen

8.-

- a) ziren
- b) zen

9.-

- a) zituen
- b) zen

10.-

- a) zuen
- b) zen

11.-

- a) zen
- b) zuen

12.-

- a) zuten
- b) ziren